

# ESTIBAUS

Boletín de ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAREN Buletina nº 10 zbk. septiembre 1998ko iraila

"aiuntados en el campo de Estibaús según que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar..." (Altza, 1390)

## Igeldok herria izan nahi du

Juan Carlos IZAGIRRE

Horrela adierazi zuen orain dela lau urte. Erabaki guztiz errespetagarria. Herri batek erabaki bat hartzen duenean, eta indarrean dauden legeek erabaki hau gauzatzeko herri honek eskubide osoa duela esaten dutenean, badirudi bidea erraza izan behar duela. Ba ez!

### Donostiako Udaletxearen jarrera gure eskaeraren aurrean.

Donostiako Udaletxea hasiera hasieratik gure eskaerari oztopoak eta traba administratibo eta juridikoak jartzeko alde posizionatu da. Egin zuten lehenbiziko gauza legez kontrako akuerdo bat hartzea izan zen, gure eskaera egin eta gero indarrean jarri zen Foru Arau berri bat aplikatu baitziguten. Errekurritu egin genuen, noski.

TSJPV-k atera duen sententzian garbi uzten du arrazoia guk daukagula. Donostiako Udaletxeak eskaera egin genuenean indarrean zegoen legea aplikatu behar digu. Lege horrek dionenez, gure eskaera Batzar Nagusietara pasa behar du derrigorrez. Udaletxeak hartutako akordioa baliorik gabe uzten du sententziak.

Donostiako Udaletxeak sententzi hau errekurritu egin du Tribunal Supremoren aurrean. Baina ez akordio ondo hartu zuela eta legezkoa zela pentsatzen duelako, baizik eta beste hiru urtetan tramitea atzeratzeko.

Argumenturik ez dutenean, horrelako trabak eta putakeriak egiteko aukera baitu Administrazioak. Zer lortzen dute ba honekin?

- gastu ekonomiko eta lana gehiago sortzea. Beraientzako hau ez da arazoa. Denen diruakin jolasten dute. Baina guretzako arazo larria da. Zer lortu nahi dute, gu ekonomikoki ito eta horrela gure eskaera ahaztea? azkenean aspertuta eta nazka eginda, hainbeste lan egiteak ez duela pena merezi eta dena abandonatzea? Ez

dute lortuko, jakina; baina horrela izango balitz, hau alda bere demokrazi eta tolerantzia?

- benetako arazoaren eztabaida atzeratzea. Badakite lehenago edo geroago eztabaida serioa izan beharko dela. Bakoitzak bere argumentuak jarri beharko dituela mahai gainean. Igeldo herri independente izatearen aldeko edo kontrakoak. Zer gertatzen da, beldurrez daudela bere argumentuak inolako pisurik ez dutelako?

### Eta zergatik izan nahi dugu herri independentea?

Luzea izango litzateke esplikatzea Igeldon eduki genuen eztabaida prozesu guztia. Azterketa mordoska egin zen,

abokatu, teknikari, herri txikiko alkateak, Kontzejoko lehendakariak, eta beste hainbat pertsonai ekarri genituen Igeldora, mahai inguru, hitzaldiak eta bilera informatimoak egiteko. Esan dezakegu ondo pentsatutako erabakia izan zela.

Eztabaidetan azaldu ziren argumentu batzuk:

1. Igeldok beti izan du herri izaera. Bere nortasun propio du. Bere ohiturak, hizkuntza, antolaketa, bizimodua. Nortasun hau babestu nahi bada, garbi dago etorkizuna markatuko dituen erabakiak bertan hartzea dela gauza egokiena. Eta Donostiako Udaletxea ez dago prest igeldotarrok erabaki dezagun gure etorkizuna. Beraiek erabaki nahi dute.

>>(4. orrialdean jarraitzen du)



*En Igeldo lo tienen claro. Tanto los estudios de viabilidad del futuro municipio como la consulta popular realizada apuntan en una única dirección: Igeldo quiere y puede ser municipio. Solo queda esperar que los que tienen el poder político atiendan la decisión judicial y respeten la determinación del pueblo de Igeldo.*

## Altza Internet-en

Antxon ALFARO

Pixkanaka pixkanaka, Interneten Altzaren presentzia gero eta nabariagoa da. Orain dela bi urte, Altzako Historia Mintegiko partaideok sarean jarri genuen Altzari buruzko lehengo webgunea, egun, beste bi aurki daitezke Altzako informazioarekin: ADISKIDEAK Atsedeen Taldea eta HERRI AMETSA Ikastola.

### HERRI AMETSA Ikastola

<http://www.bitlan.com/hai>

Webgune honetan ikastola honi buruzko informazio orokorra, argazki askorekin, eskaintzen da. Oraindik gunea osatzen ari dira, eta laister edukin gehiago jarriko dituztela aipatzen dute. testuak euskara eta gazteleraz daude.

### Club de Tiempo Libre ADISKIDEAK

<http://www.geocities.com/siliconvalley/hills/6439>

Altzagainako talde honek ikasturtean zehar egiten dituen ekintzei buruzko informazio zehatza eskaintzen da goiko lerroetan jasotako helbide elektronikoan. Baita ere, taldearen historia labur bat jarri dute. Informazio guzti hau gazteleraz bakarrik eskaintzen da.

## Septiembre: viejos y nuevos proyectos

*En años anteriores la Asamblea General de nuestra asociación la hemos solido realizar por estas fechas, a la vuelta del verano. Este año, sin embargo, hemos pensado cambiar las fechas y retrasar la asamblea hasta principios del próximo año, concretamente el segundo sábado de enero. De esta forma hacemos coincidir el año natural con el año de trabajo, lo que nos facilitará de alguna manera los papeleos y trámites que solemos tener que hacer.*

*Esto no quita que tras el parón veraniego, necesitemos volver a tomar carrerilla y tengamos una reunión para volver a poner en marcha lo que dejamos en julio y esbozar nuevos proyectos para los próximos meses. Esta reunión de arranque tendrá lugar el próximo sábado 17 de octubre a las 11 de la mañana en Casares.*

*De cara al nuevo curso tenemos planteados unos cambios sustanciales en la Colección Local orientados a mejorar su organización y utilización por el público. Tenemos entre manos el reto de publicar un nuevo número de Hautsa Kenduz, cuya publicación va a sufrir un ligero retraso pero que más pronto que tarde saldrá. Conoceremos el resultado de la beca de este año, continuaremos realizando excursiones, y navegando por la red con Altzanet...*

*Seguro que podemos hacer más cosas y mejor. Por eso os invitamos a sumaros a estas actividades y a proponer otras nuevas. Ya conocéis el camino.\**



La Diputación ofrece a través de la red una interesante página (1:5000 web) que permite la localización de edificios, calles y poblaciones de toda Gipuzkoa y pone a nuestra disposición una cartografía bastante detallada de todo el territorio. Entre otras cosas, gracias a ella podemos hacernos con planos de las calles, barrios, caseríos, etc. de Altza y utilizarlos en nuestras actividades. La dirección es: [http://b5m.gipuzkoa.net/lizpub/visor\\_eu.htm](http://b5m.gipuzkoa.net/lizpub/visor_eu.htm)

## Nace la video- revista ALTZAN BIZI

El pasado mes de abril tuvo lugar en Casares la presentación del número cero de la video-revista "Altzan Bizi" producida y realizada por el Equipo Plazara. Este equipo, compuesto por Helene Etxegoien, Sven Gabbert, Juan González, Eusebio Igoa, Egoitz Rodríguez y Fernando Rodríguez, ha pensado y elaborado este proyecto de video-revista con el objetivo de plasmar en imágenes los principales acontecimientos socio-culturales que tienen lugar en Altza.

Se pusieron manos a la obra y en el primer número que presentaron en junio nos ofrecieron a lo largo de treinta minutos un resumen de lo acontecido en Altza entre los meses de abril y junio: 25 aniversario de San José de Calasanz; las jornadas sobre drogodependencias; las jornadas de Agora; las actividades de Casares (exposición de maquetas, mimo, coros, el nuevo número de Scribos, conciertos....) Además, incluye una encuesta sobre el nivel de información cultural que tenemos en Altza, una entrevista a la joven banda rockera "The Young Pigeons", y un repaso a la oferta de actividades que de cara al verano habían organizado los grupos de tiempo libre altzatarras.

Este proyecto viene a llenar un vacío importante que teníamos en Altza, el de la información audiovisual de primera mano elaborada por y para los altzatarras. Felicidades y buena suerte.

La orri bat Irutxulon. Lau lerro El Diario Vascon. Bostpasei horri egunkarien hainbat gehigarrietan (gero eta maiztasun gutxiagorekin). Horixe da hedabideetan Altzari buruz agertzen den informazio guztia. Zoritxarrez, eskasa da.



*Altzan Bizi es el nombre de la video-revista que cada dos meses realizará Plazara, Taller de Video para la Comunicación Educativa. Altzan Bizi surge con la intención de ampliar la casi inexistente información que los medios de comunicación proporcionan sobre Altza. De esta forma, la video-revista estará compuesta por diversas secciones dedicadas a informar acerca de los acontecimientos y actividades del barrio, sobre sus historia, asociaciones, etc. Es decir, llegaremos a donde los otros medios no llegan.*

Altzan Bizi bideo-aldizkariaren izaera irekia izatea nahi dugu. Honek esan nahi du auzoko bizilagun orok parte har dezakela ahal duen moduan; eskutitzak, argazkiak eta berriak bidaliz, elkarrizketak eskatuz edota ahal duzuen iradokizun guztiak eginez. Zure laguntzaren zain gaude!!

### BAZKIDE TXARTELA - ¡HAZTE SOCI@!

Elkarrekin gehiago ahal izango dugu egin. Izan zaitetz ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAren bazkidea.

Tú también puedes participar. ¡Hazte soci@ de ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA!

La cuota anual es de 1.000 pts. / Urteko kuota 1.000 pezetakoa da.



Nombre y apellidos / Izen-abizenak:

Dirección / Helbidea:

Localidad / Herria:

Posta Kodigoa:

Telefonoa:

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA Lau-Haizeta, 21-3.ezk. 20017 ALTZA E-mail: altzakohm@eusnet.org

>>(1. orrialdetik dator)

Beraiek esan ze nolako Igeldo izan behar dugun. Beraien interesak eta ikuspuntuak defendatuz, noski. Eta gureak kontutan eduki gabe. Erabakiak Igeldon bertan hartu nahi ditugu. Soluzioa: herri independente izatea.

2. Administrazioa gerturatzea. Eguneroko arazoak sortzen direnean (bide bat konpondu beharra, papelera batzuk aldatu, frontoia pintatu, lizentzi bat lortu, bideak txukundu, barandila edo ispilu berria jarri,...) erantzun azkarra eta egokia nahi izaten da. Igeldotik nazka nazka egina gaude gauzak eskatu eta kasurik egiten ez digutelako. Baina asuntua ez da nahita egiten dutela edo, ez dugu uzten horrela denik. Asuntua da Donostiako administrazioa oso haundia dela, eta horrelako gauza txikiak ez dute lehentasunik. Agian, logikoa. Baina igeldotar batentzat baserri bide batek Donostiako Avenidak baino garrantzi gehiago eduki lezake. Soluzioa: herri independentea izatea.

3. Udaletxeak Igeldon inbertitu dituen diruak oso eskasak izan dira. Azpiegituretan ez du ia ezer gastatu azkeneko 30 urtetan (orain bai gastatzen ari dela, baina gure eskaeraren ondorioz, eta guri kontsultatu gabe, noski). Edozein herri txikien azpiegiturek eta zerbitzuekin konparatuz, Igeldo abandonatua dago oso. Egin ziren estudio guztietan garbi azaltzen zen herria izanik hau asko hobetuko litzatekeela.

4. Eta azkenik, eta oso inportantea. Gehiengoak herri independente izan nahi du. Eta legeak aukera hori ematen digu. Betetzen ditugu jartzen dituen baldintza guztiak. Beraz, gure eskubide bat defendatzen ari gara. Legea bete dezatela.

## Igeldoko mugak

Igeldotaz ari garenean ze lur eremutaz ari garen hitz egiten askotan

tokatu zaigu esplikatzeari. "Monte Igueldo" bezala ezagutzen den "parque de atracciones"-a ez dago Igeldon. Ez da sekulan Igeldo izan. Ez daude Igeldon ere "Camino del Faro", "Erregenea" edo "Paseo de Igeldo".

Igeldo Balentingo Kurban (Leku Eder Jatetxea) hasten da. Hortik gora eta Orioko mugara arte Igeldo da.

Ibaeta aldean berriz gune industrialak kanpoan gelditzen da. Pilotegi eta Pokopandegiko bide zati bana ere bai, baina beste bat barruan dago.

Usurbil eta Oriokin dituen mugak, gaur egun Donostiak dituen ber-berak dira.

## Eta Donostiarrei zer suposatzen zaie

## Igeldoren segregazioa?


Ba gauza haundirik ez. Aldaketaren bat edukiz gero, onerako izango da dudarik gabe.

Alde batetik, eta egindako txosten ekonomikoetan garbi azaltzen da, ekonomikoki Donostiari ez zaio inolako kalterik egiten segregazioarekin.

Bestetik, Igeldo politagoa eta hobeto zainduagoa aurkituko dute gure herrira etortzen diren guztiak, donostiarrek gehien bat.

Beraz, denok aterako ginake irabazten.

Zergatik orduan hainbesteko traba eta oztopo? galdetu politikareki!\*



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa  
fundación